

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ai ama!

Eskolara noa, eta maisurik ez da; ezta maistrarik ere: Ai ama, ama ail!

Udaberrian lehertu zen krisia, gereziek gorritzen hasi behar zuten sasoian. Herri normala ematen zuen hango hark bere muinoan kokaturik, bere kanpandorre zaratsua-rekin, bere eskola xumearekin; alabaina, berezia bihurtu zen goizetik gaue-ra: ez zeukaten nork irakatsia.

Ikastera joaten ziren haurrak eskolara. Halere, han ez zegoen ongi-etorria egin ziezaiekeenik. Astelehenetan joaten ziren, asteazkenetan, ostiraletan... astearte eta ostegunetan; baina, ikasgelan lezioa emango zienik ez zen.

Ohikoa eman nahi zuen herri hark, hala eskatzen baitzuen Kons-titutzioak; halere ez zegoen ezkuta-tzerik kinka larri hura, porrot biri-bil hura.

CURRICULUMAK KALE. Herri har-tan ezin zen ikasketa-ardatz argirik adostu: haizeak nondik, helburuak han-dik. Inprobisazioa eta itxurakeria zen guztia, desgobernu bufoikara eta inpro-bisatu baten emaitza tamalgarria.

Alkateak agintzen zuen eskolan, ez irakasleak. Eta, alkate hark ez zekien alfabetoko marrazkiak interpretatzen: berdin zitzaion “p”, “t”, “k” edo “b”, “d”, “g”... ez baitzuen irakurtzen asma-tzen. Bokalekin moldatzen omen zen, baina ongi idatzi, “o” besterik ez zuen ongi idazten, zentimo erdiko txanpon baten laguntzarekin.

Alkatea bera zen haizearen mendeko nagusia: tokatzen zenean bere balkoian hortentsiak ureztatzea, eskolan *Hydrangea hortensia* eta arrosaren ordenako gainerako zuhaixkak ikasi behar ziren; tulipanak loratzen hasten zirenean bere terrazan, *Tulipa gesneriana* eta zitoriaren familia estu-diatu behar zen bere osotasunean.

Okerrena etorri zen espezie exotiko-ak deskubritu zituenean alkateak.



INIGO AZKONA

Orduan heldu zen maremagnuma. Kaosa.

ALKATEA, MAISU. Anabasaren erdian, Ameriketako Panpatik ekarritako landa-re itxuraz lerden eta zurixka bat, *Cortade-ria selloana* delako espeziea jartzea agindu zuen alkateak eskola-ume denen aurrean. Ikasleetako eroenak ere igarri zion hari luma-erratzaren itxura.

Eskolako lorategian landatzea agindu zuen alkateak. Ureztatzea eta ongarritzea. Begiratzea eta zain-tzea. Babestea. Erratz hura bihurtu zen eskolako totema.

Azken tantoa izan zen hori: maleta hartu eta han joan zen tren-geltokira irakaslea, azken irakaslea. Txartela erosi, etxera heldu eta antzarrak ferratzen hasi zen, bere bakardadean.

Garbiketa etorri zen berehala. Panpako erratza hartu eta bazter guztiak pasatu zituen alkateak.

Aldatu zion izena eskolari, kendu zituen paretetik geografia-mapak, koadroak, presidenten erretratuak. Erretiratu zituen liburuak, kaierak eta arkatzak. Izena aldatu zion herriari.


Joan ziren, joan, gurasoak agintaria-rekin hitz egitera. Galdetu zioten, galde-tu, zertara zetorren aldaketa ganorabako hura guztia. Ea ote zen umeek gehiago eta hobeto ikasteko. Ea ote zebilen herriaren mesedetan, giza harremanen mesedetan, mundua solidarioagoa izan zedin.

EZ ZIEN ERANTZUTEN. Zer dela eta dena hankaz gora? Jainkoaren agindu dibino bat, akaso? Nobel Saria jasotako medikuek formazio oker eta arriskutsu-ren bat detektatua al zuten herri hartako umeen hezurretan?

Esplikazioa zor zuela. Eta emateko.

Erantzun zien alkateak azkenean: “Lasai, holakorik ez dago. Da, igarri dezazuen nork agintzen duen hemen. Ez ahaztu!”. ■

« Eskolako lorategian landatzea
agindu zuen alkateak. Ureztatzea eta
ongarritzea. Begiratzea eta zaintzea.
Babestea. Erratz hura bihurtu zen
eskolako totema »



irudia:
Antton Olariaga